BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

1557

EBAZPENA, 2014ko martxoaren 20koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariarena, zeinen bidez onartzen baita Emaus Fundación Social erakundeak 2008ko lankidetza proiektuentzako laguntzak emateko deialdiaren barruan aurkeztutako «Las administraciones públicas vascas y la contratación ética» proiektuari uko egiteko eskaera.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarenaren 2008ko abenduaren 16ko Aginduaren bidez Garapen Lankidetza Sustatzeko Fondoaren kontura 2008.urteko proiektuei diru-laguntzak ematen dizkie; bada, agindu horren bidez, Emaus Fundación Social erakundeari 76.319,05 euroko diru-laguntza eman zitzaion «Las administraciones públicas vascas y la contratación ética» proiektua gauzatzeko.

Erakunde horrek, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari 2013ko ekainaren 27an bidalitako jakinarazpenean, hirugarren ordainketari uko egiteko eskaera partziala aurkeztu zuen.

Garapena eta Lankidetza Sustatzeko Fondoaren kargurako proiektuetarako laguntzak arautzen dituen otsailaren 27ko 34/2007 Dekretuaren 28. artikuluko 1. idatzi-zatiak ezarritakoaren arabera, erakunde eskatzaileak proiektuaren aurreikusitako garapenean funtsezko eragina izan dezakeen edozein gorabeherak jakinarazi beharko dizkio aldez aurretik Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzari, eta proiektuan egin nahi diren aldaketak gauzatu aurretik baimen-eskaera bidali beharko dio, aurrekontuan dituzten ondorioak zehaztuta.

Hala ere, proposatutako aldaketak onartzeko eskumenari dagokionez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu, arautu eta jardunean jarri ondoren (ekainaren 19ko 5/2008 Legea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duena; martxoaren 23ko 95/2010 Dekretua, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren antolaketa eta funtzionamenduko erregelamendua onartzen duena; azaroaren 23ko 310/2010 Dekretua, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren jarduerak abiaraztea arautzen duena), aipatutako eskumena eta, oro har, laguntza horiek kudeatzeko behar diren ebazpenak ezartzekoa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariari dagokio.

Horren ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Onartzea Emaus Fundación Social erakundeari 2008ko lankidetza proiektuentzako laguntzak emateko deialdiaren barruan aurkeztutako «Las administraciones públicas vascas y la contratación ética» proiektuari uko egiteko eskaera.

Horren ondorioz, Erakundeak hirugarren ordainketatik justifikatu gabeko kopurua itzuli beharko du, hau da, 2.314,20 euro.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka, gorako errekurtsoa jarri ahal izango zaio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren lehendakariari, hilabeteko epean, argitaratu eta biharamunetik aurrera. Gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu eta hiru hilabete igarota oraindik ez bada ezer ebatzi, errekurtsoa ez dela onartu pentsatu beharko da, eta administrazioarekiko auzietarako bidea irekiko da.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko martxoaren 20a.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria,
PAUL ORTEGA ETCHEVERRY.